

ARSKO ABADE SANTUA

Ez dakit noiztik eta zergaitik be, baiña beti izan dot gogoko Arsko abade santu au. Baliteke, bere jai egunean, neure karmeldar profesa egin nehalako edo bera abadeen zaindari dala-ko... Ala ere, nire estima ori lar azalekoa izan danik, ezin ukatu. Bere bizitza eta mezuari buruz, betiko bi-iru topiko, ta orduen liturgian dakarren bere sermoi bat kendu ezkerro, ezer geiago ez dot sakondu.

Ta aurtengo udazkenean, nondik nora jausten dan nire eskuetan liburu atsegin bat. Bere izena "Orar con el cura de Ars". Desclée de Brouwer argitaletxeak plazaratuta. 200 orritik gora ditu. Amalau kapitulutan zear agertzen dira Juan Maria Vianney santuaren pentsamentu ederrenak.

Kapitulu bakotxaren atarian, José Pedro Manglanok abade santuaren bizitzako gorabeera interesanteenak aipatzen ditu. Zeaztasun orreek ondo baino obeto datoz, kapituluetan datozan pentsamentuak ta esperientziak dastatzeko. Ta, zer esanik ez, asko laguntzen dabe otoitz egiten ta gaurko egoerari aurpegia emoten.

Nire idazlantxo onen elburua ez da Arsko abade santuaren bizitza ta mezua sakontzea. Gitxiago oraindino bere santutasuna egiztatzea. Ori argi ta begibistan dago, Eleizak altaretara ja-

so dabenetik. "Gure parrokia oso pobrea da baina santu bat daukagu parroko", inoen bere erritarrak.

Nire asmoa da, batetik gure santuaren denborak oso gogorak izan zirala aipatu. Ta bestetik Juan Maria Vianney ez zala ezjakin bat, gizon argia ta zuurra baiño.

Garai gogorak

Arsko abade santuaren aldiak oso trajikoak izan ziran. Frantziako iraultza asi baino iru urte leenago jaioten da Lyongo lurraldean. Ta 1859. urtean ilgo da. Iraultzaren terrore-aldi gogorrenak ezagutuko ditu. Zenbat eleiztar ta abade on, bere begien aurrean, erasotuak ta, geienetan, lepoa moztuak. Ta beste asko espetxeratuak. Ta ez gitxi, Inglaterrara ta Alemaniara ta Ameriketara ies egiñak. Bere leenengo Jaunartzea be, etxe baten ezkutatuta egoan abade baten eskutik artuko dau. Askatasunaren izenean egindako iraultzak, orrenbeste triskantza ta ondamen sortu leikenik be, ezin da amesetan be pentsau!!!

Gorriak ikusiko ditu gure santuak bere pastoralgintzan. Bai gorputzez ta bai arimaz. "Jakín izan banitu Arsera eldu nintzanean, emen jasango nebazan sufrimentuak, bertan sustoz ilgo nintzan" esango dau bere azken egunetan. Batetik penitentzia ta pobretasun gogorra. Bestetik askoren amorrak ta erasoak.

Pobre bateri emon eutsonez, koltxorik be ez dauko lo egiteko. Beste bein bere oiñetakoak erregalauko deutsoz. Urrengoan bere prakak be bai. Ta bitartean bera ortozik eta praka barik sotana zaartxoá jantzita.

Jateko urria! Bein baiño geiagotan, astelenean egositako patatak, aste guztiko janari. Neguan otzak jota. Ta udan erretako beroa. Ta gainera bere buruari penitentzia ta mortifikazio gogorak jarriko deutsoz. Ez jakon falta ez baraurik, ez ziliziorik, ez penitentziarik...

Oso goiz jaikitzen zan. Goizeko lauretatik zazpiretara otoi-tzean, belaunikatuta, altarako sagraioaren aurrean. Zazpiretan meza santua. Ta ondoren, eleizan jardungo dau konfesionario txatxar eta estu baten pekatariak autortzen. Brebiario santua beti bere eskuetan izango dau otoi-tzerako.

Naizta Arsko erritxoak 200 biztanle inguru izan, andik eta emendik, geroago ta geiago urreratuko dira bertara. Bere itzal-diak entzutera ta, batez be, euren pekatuak autortzera. Bere azken urteetan, eun mila pertsonatik gora autortuko ditu urte-an zear. Ta egun askotan, 18 ordu be egingo ditu konfesetan! Arsko eleizatxoa, udan berogailu ta neguan izozkailu irudian. Ia egunero joango da ume ta gaztetxoentzako berak eraiki eban eskolan dotrinea emotera. Ordu bat eta erdi iraungo dau orretan. Ta ez da oeratuko gabeko amabiak jo aurretik. Ta olantxe egunero, gaixorik egon ezik.

Gizon argia ta zuurra

Bada or klixe bat erraz erabilten dana. Arsko abade santua ez zala batere argia. Ori ez da egia. Gizon argia ta zorrotza dogu berau. Beste gauza bat da, abade karrerea aurrera atarateko txarto ibili zala esatea. Bere kasuan oso normala izan zan ori. Ez eukan inondiko prestaerarik filosofia ta teologia ikasteko. Ta gaiñera dana latinez ikasi bear izan ebalako.

Amairu urte bete arte ez eban cuki aukerarik idazten ta irakurten ikasteko. Ta aurrerantzean, olakorik gertatu ez daiten, Arsko parroko izentatu ebenian, bere leenengo zeregiña izango da erri orretan eskola bat eraikitzea.

Abade karrerea asi aurretik ikasi eban apurra, bere erriko abadeak erakutsia izango da. Baita latin apurra be. Ta olako oiñarri eskasekin, derrigor gorriak jasan bear abade karrerea aurrera eroateko.

Buru argia eukala esateko, naikoa da berak dabiltzan ejenpluak, parabolak, esaldiak, irudiak, konparaketak eta pasadi-

zuak kontuan izatea. Ta geienak, bere eliztarrak nekazariak ziranenez, nekazaritza mundutik eta naturatik artuta. Olako anekdotak eta irudiak, ez ditu edonork asmatzen, buru argia daukanak baiño. Ta orixe da gure santuaren kasua be.

Jarraian ipiniko dodazan ejenpluak gitxi baiño ez dira. Beste makeña bat geratzen dira gorago aipatutako liburu orretan. Baiña naiko ditugu gure santuaren adimen zorrotza ta praktikoa ikusteko. Buruargia danez, badaki bere lepotik barre egiten. Orixo bai dala zuurra izatearen seiñale garbi bat. Abade artean bera “Bardin” zala gustatzen jakon esatea. “Bardin” ori an inguruko lelo errukarri bat ei zan.

Gauza txikienen anditasuna ikusi ta baloratzeko, Espiritu Santuaren argia bearrezkoa dala adieraziko dau, erlojuegilearen lenteak gogoratuz. “Espiritu Santuaren laguntzari esker, kristau batek gauza on txikienen anditasuna ta duintasuna edo gauza txar txikienen astuntasuna ta larritasuna bereizten ditu, erlojuegileak bere lентeei esker erlojuaren barruko pieza txikiak bereizten dabezan moduan”.

Kristau on batek, Jaungoikoaz egoteko daukon poza ta egarria, igerian dabillen arrainaz konparatzen dau. “Arraina ez da kexatzen ur anditan aurkitzeaz, ezta kristau on bat be denpora luzean Jaungoikoaz otoitzean egoteaz”.

Kristau on baten zoriona eta txar baten atsekabea onela azaltzen dau. “Kristau on batek mundu au igaroten dau karroza eder baten gainean jesarrita. Aingeruak daroe karroza ori ta Jesukristo dauko gidari. Ta kristau pekatariak, ostera, mundu onetako karrozari lotuta dagoanez, deabrua daroa karroza gainean ta onen zigorkadei esker mugitzen dau tatarrez karroza ori”.

Zintzoen poza ta txarren garraztasuna azaltzeko, beste konparaziño oneek be badakaz. “Zintzoak daroen abriguen azpikoa bigun biguna da; okerrenak daroana, ordea, arantzaz bete-

rikoa". "Zintzoen biotzak beti udabarrian bizi dira, ta gaiztoenak, ostera, negu baltzean".

Sufrimentua ortxe dago. Nai ta nai ez, sufrimentuaren sartadak danok ezagutzen ditugu. Non dago sekretua, aurrera egiteko? Jesusegaz kurutzeratutako lapur biak ditu eredu. "Kalbarioan, Jesusen albo bietan egozan lapurrak, biak sufritzen dabez itzelezko penak. Baiña lapur onak maitasunez sufritzen dau eta txarrak gorrotoz". Ortxe dago sekretua.

Murmuratzailleak salatzeke be irudi gogorrak erabilten ditu. "Mormoxetan dabizanen aoak, fruta onenak zulutzen ari dan kokoa edo lorarik politenak ondatzen dabezan lupua bezelakoak dira". "Zer esango zenduke gizon bat iñoren soloa lantzen ibili ta bere etxeko soloa landu barik itziko baleu? Orixegiten dozue iñoren kontzientziak arakatu ta norberenenak arakatzen ez dozuzanean".

Otoitzaren premiña azaltzeko, onelako irudi bizi biziak darabitzu. "Erren batek ibilteko makuluak baiño bearrezkoagoak ditu kristau batek otoitza ta Jaunaren grazia". "Otoitza, arnasea bizitzeko bezain premiñazkoa dogu". "Eurria lurrarentzat baiizen ezinbestekoa da otoitza arimarentzat. Atxurtu lurra, bota simaurra, landu, erein azi ona, baina euririk egiten ez badau, dan dana izango da alferrik". "Otoitzik gabe, gure biotza marmola bera baiño otzago biurtzen da". "Otoitz egiten ez dogunean, gure oilotegietako egaztien antzekoak gara. Naizta egoztzar galantak izan, ezin dabe egan egin ta asten badira egan, berealaxe jotzen dabe lurra. Ta otoitz egiten dabenak, ostera, goi zeru urdinean elegante egan dabizan eguzki-arranoak dirudie".

Egiatzko otoitzaren sinpletasuna esateko, pasadizu au gustatzen jakon gogoratzea. Gizon zaartxo bat, iluntze guztietan, solotik etxera joan aurretik, Arsko eleizatxoan sartu barik ez zan etxeratzen. An jarduten eban denpora luzean Sagararioaren aurrean otoitzean belaunikatuta. Ona emen, bion alkarizketa:

- Zer egiten ari zara? - diñotso bein parroko santuak
- Otoitza! - erantzuten deutso aguretxoak
- Ta zelan egiten dozu otoitz? - parroko santuak.
- Jesusi begira egoten naz, ta Bera niri begira! - aguretxoak.

Ez dago kristau birtuterik, umiltasunik gabe. Geroago ta geiago aipatuko dau Juan Maria Vianneyk umiltasunaren inportantzia kristau bizitzan. "Birtute guztien artean, umiltasunak errosarioaren katea dirudi. Apurtu katea ta errosarioaren garau guztiak bertanbera galduko dira. Kendu umiltasuna ta birtute guztiak berealaxe desagertzen dira". Umiltasunak, balantza bat dirudi. "Zenbat ta geiago alde batetik geure burua makurtu, ainbat geiago bestetik igongo dogu".

San Maurizioren pasadizua be gogoko jakon kontatzea.

"Bein deabru bat agertzen jakon San Mauriziori ta badiñotso:

- Zuk egiten dozun guztia, neuk ere egiten dot. Zuk barau egiten dozu, eta nik ez dot iñoiz be jaten; zuk gaubela egiten dozu, eta nik ez dot iñoiz be lorik egiten!

- Nik egiten dot, zuk iñoiz be ezin dozuna egin! - erantzuten deutso San Mauriziok.

- Eta zer da ba ori?

- Neure burua makurtu!

Andra Mariaren bitartekotasuna adierazteko, beste irudi askoren artean, au be erabilten dau:

"Lurra ta zerua bat egiten zituan eskailera deabruak apurtu eban. Ta Jesukristok bere pasiñoaz eskailera barri bat lortu euskun eta eskailera orri eusten goi puntatik oratuta Andra Maria jarri eban Jesusek".

Arsko abade santua, Eukaristi sakramentuaz lilluratuta biziko da. Sagrarioaren aurrean zenbat ordu otoitzean! Antxe gertatzen ebazan bere sermoiak be. Sagraria begira-begira egoten zan sermoi denporan be. Bere azkenengo sermoia orixe

besterik ez zan izan. Ez eutson abotsak urteten ta pulpitoan egoan bitartean, Sagrarioa begira egon zan negarrez. Bere bizitzako sermoirik ederrena orixe izan ei zan!

Berarentzat ez egoan eginkizun ederragorik meza santua esatea baiño. Bere zoramena Gurejauna eleiztarrei emotea! Baiña zenbat aitzaki bere eleiztarren artean mezara ez joateko eta komuniñoa ez artzeko. “Ez esan ez zareela gauza Gurejauna artzeko!. Gure duintasuna gogoan izan baleu Jesukristo gure Jaunak, ez eban iñoiz be maitasun beteriko sakramentu au ezarriko, iñor be ez dalako duin, ez santurik ez aingerurik, sakramentu ori artzeko. Baiña kontuan izan ditu gure bearrianak. Komuniñoa ez artzeko, ez esan pekatuz ta miseriaz josita bizi zareela. Ze pentsauko zendukee, gaixo bateg, ain gaixorik aurkitzen danez, ez doala medikuak agindutako medizinak artzera, esango baleu? Komuniñoa artzen dogunean, Jaungoikoaz bat egiten dogu, ur tantatxo bat itxasoaz bat egiten dan antzera”.

Ta beste zenbat olako ejenplu ta irudi eder! Liburutxoa artu ta irakurtea baiño ez daukagu. Batez be, itzel lagunduko deusku abade onak edo kristau laiko jatorrak izaten. Or bai sentitzen dala Jaungoikoaren zirrara ta presentzia ta poza! Gaur be bai!

“Jaungoikoaren maitasunik gabe, ez lorarik ez fruturik ez daukenen arbolen antzekoak gara”. Juan Maria Vianneyren, Arsko abade santuaren berbak ditugu.

A. Olea